



elkar-lan

S. COOP.

KOOPERATIBAK SUSTATZEKO ELKARTEA
SOCIEDAD PARA LA PROMOCIÓN DE COOPERATIVAS

Entidad declarada de UTILIDAD PÚBLICA
HERRI ONURAKO izaera emandakoa

Elkar-Lan, S. Coop.
San Vicente, 8 - 9.º Izq. (Edif. Albia II)
48001 BILBAO
Tel.: 94 470 37 60
Fax: 94 470 37 61
e-mail: elkarlan@elkarlan.coop
www.elkarlan.coop

**KOOPERATIBA BAT ERATZEKO
GIDA PRAKTIKOA
2017**

AURKIBIDEA

I. SARRERA	2
II. KOOPERATIBAREN BIDERAGARRITASUN ENPRESARIALA	3
III. KOOPERATIBA IKUSPEGI SOZIOETARIOTIK.....	6
IV. ERAKETA PROZESUA.....	15
V. UDAL LIZENTZIAK ETA BESTE IZAPIDE ADMINISTRATIBO BATZUK.....	17
VI. KOOPERATIBAREN FISKALITATEA	22
VII. GIZARTE SEGURANTZA KOOPERATIBAN	26
VIII. KOOPERATIBENTZAKO LAGUNTZA BEREZIAK	29
IX. HELBIDE ERABILGARRIAK	32

I. SARRERA

Gida honen bosgarren argitalpen eta eguneraketaren bitartez informazioa eman nahi zaio publiko orokorrari, eta bereziki talde edo kolektibo ekintzaileei, euren enpresa eraldatu edo berri bat garatu nahi badute, betiere ezaugarri demokratiko, solidario eta parte hartzaileekin. Hau da, Sozietate Kooperatibo bat zer den ezagutarazi nahi zaie: pertsonen konfigurazio sozietario bat da, zeinak bere kideei lanpostuak sortu eta finkatzeko aukera ematen dien, enpresan hartzen diren erabaki guztietan zuzeneko partaide izanik.

Edonola ere, Kooperatiba berez enpresa bat dela izan behar dugu gogoan, eta, horregatik, eratu aurretik, uste dugu bideragarritasun proiektu bat landu behar litzatekeela, abiarazi nahi den negozioaren egingarritasuna egiaztatzeko.

Sozietate Kooperatiboa, sozietate oro bezala, berariazko araudi batek eta neurrira egindako Estatutu Sozial batzuek arautzen dute, eta hausnartu egin behar da xedapen gaietan sustatzaileei aurkezten zaizkien aukerei buruz, eta bazkideen autonomiari estaldura ematen dioten gaiei buruz.

Kooperatibak tratamendu berezia eta berariazkoa du, bai zerga gaietan bai Gizarte Segurantzari buruzkoetan, bere izaera juridikoaren ondorioz. Sustatzaileek hori ezagutu behar dute, eta hori da gida honetan labur azaltzen dena.

Halaber, egokia iruditzen zaigu azaltzea, behar bezala zabaldu eta ezagutzeko, Kooperatibek eta bazkideek eskuratu ditzaketen laguntzak eta, ildo horretan, gaur egun daudenak jaso dira, espezifikoak kooperatibentzat eta bere bazkideentzat.

Azkenik, erakunde publikoen eta pribatuen helbideak jaso ditugu, Sozietate Kooperatibak eratzeko interesa duten pertsonentzat oso baliagarriak izan daitezkeelakoan.

Edonola ere, gida honen eduki osoa ELKAR-LAN, S.COOP. Kooperatibak Sustatzeko Sozietatearen webgunearen bitartez aurkitu eta deskargatu daiteke. (www.elkarlan.coop)

II. KOOPERATIBAREN BIDERAGARRITASUN ENPRESARIALA

Kooperatiba enpresa bat da eta, horregatik, bere sustatzaileek, Kooperatiba eratu aurretik, dokumentu bat landu behar dute Bideragarritasun Plana garatzeko, abiarazi behar duten proiektua aztertu ahal izateko.

Bideragarritasun Plan horrek, gutxienez, puntu hauek izan behar ditu:

A. NEGOZIOAREN DEFINIZIOA

Oro har, enpresak zertan jardun behar duen azaltzea.

B. AZTERKETA KOMERTZIALA

Azterketa horretan alderdi hauek hartuko dira kontuan, proiektu bakoitzean behar bezain sakon:

- Produktuaren definizioa: enpresak salduko dituen produktu-zerbitzu desberdinak zehatz garatzea; horiek termino fisikoetan eta teknikoetan azaltzea eta bezeroek produktu hori erosten dutenean baloratzen dituzten puntuak azpimarratzea.
- Merkatuaren ezagutza: Enpresa berriak ase nahi duen merkatu bolumena eta gaur egun merkatu bolumen hori nola asetzen den baloratzeko. Halaber, hausnarketa egin behar da egon daitezkeen merkatu segmentuei buruz (kontsumitzailearen gustuen arabera, edo erosteko ahalmenaren arabera, etab.).
- Lehiakideak ezagutzea: Identifikatu daitezkeen heinean, sortu beharreko Kooperatibaren gaur egungo lehiakideak zein liratekeen azaltzen da, baita lehiakide horiek etorkizunean egin ditzakeen produktuak/zerbitzuak ere.
- Salmenten plangintza eta kontrola. Atal honetan arlo komertzialean garatu beharreko helburu kualitatiboak ezarri behar dira (halako tokitan sare komertziala ezartzea, halako tokitan bezero berri bat lortzea...), baita helburu kuantitatiboak ere, jardueraren lehendabiziko hiru urteetarako; lehen urterako, hileroko salmentak eta horiek kobratzeko modua zehaztuko dira.

C. EKOIZPENAREN AZTERKETA

Atal honetan bi alderdi garatuko dira:

- Ekoizpen prozesuaren definizioa: Produktua/zerbitzua egiteko prozesuaren azalpen zehatza, ekoizpena hasten denetik bezeroarengana iritsi arte. Prozesu horren antolamendua.
- Ekoizteko ahalmena: Enpresak azterketa komertzialean salmentetarako egin dituen aurreikuspenen arabera ahalmen produktiboa garatu behar du.

D. EROSKETEN AZTERKETA

Enpresaren erosketa politika kontuan hartuta lehengaiei, kontsumitzeko materialei eta azpikontratazioei dagokienez. Horrelakorik egonez gero, garapen horretan azalduko dira hornitzaile kopurua, ordaintzeko era eta merkantziak entregatzeko epea.

Izakinak behar badira, enpresak biltegitratzeko politika bat garatuko du, produktu amaituarekin, egiten ari denarekin eta lehengaiekin, atal honetan aztertuko den bezala.

E. INBERTSIOEN AZTERKETA

Aurreko ataletan aztertu denaren arabera –komertziala, ekoizpena eta erosketak–, beharrezko inbertsioak definitzen dira, horien ezaugarriak, ordaintzeko erak eta hasteko epea.

Atal honetan, halaber, inbertsioko ondasunak amortizatzeko jarraituko den irizpidea azaltzen da, izan materialak edo immaterialak, ustiapen kontuan zein mailatan eragingo duten ikusi ahal izateko.

F. LANGILEEN AZTERKETA

Salmenten kuantifikazioan eta aurreko arloetan azaldukoan oinarrituta –Komertziala, Ekoizpena, Erosketak eta Inbertsioak–, enpresan lan egingo duten lagunak adierazten dira, izango duten ardura, izan ditzaketen prestakuntza beharrak, langileen kostuak eta ordainketen hileko banaketa (Lan aurrerakinak/Soldatak, Gizarte Segurantza, PFEZeko Atxikipenak, Aparteko Lan Aurrerakinak/Soldatak).

G. USTIAPEN KONTUA

Lehenik eta behin, aurreko ataletan aztertu ez diren kostuen kontzeptuak aztertzen dira (alokairuak, bulegoko materialak, finantza gastuak, orokorrak eta mailegutakoak, komunikazioak, etab.).

Ustiapen kontua hiru urteko ikuspegiarekin egingo da, eta jardueraren lehen urterako hileroko egingo da. Ustiapen kontuak enpresak aurreikusten duen etekina neurtzen du.

H. DIRUZAINTZAKO AURREKONTUA

Bertan, enpresak diru sarrerak eta irteerak eramango ditu (Kapitalerako ekarpena, jasotako maileguak, salmenten kobraketa eta erosketen ordainketa, kredituen itzulketa, inbertsioen ordainketa, Ogasuneko ordainketak, Gizarte Segurantzak...), ikusteko enpresak nahikoa diru izango duen aurrez ezarritako helburuak betetzeko. Hiru urterako aurrekontu bat egingo da, eta lehenak hileroko garapena izango du.

I. EGOERAREN BALANTZEA

Sortuko den Kooperatiba berriaren premien eta duten ezagutzaren arabera, urteetako bakoitzaren balantzea egiten saiatu behar da, aurkituko duen ondare egoera ikusi ahal izateko, eta aurreko atal guztietan azaldutako helburuak betetzen dituen ikusteko.

OHARRA: Elkar-Lan, S. Coop.ek Bideragarritasun Plan bat garatu du euskarri informatikoan Kooperatibentzat, Enpresa Kooperatiboaren Plana izenekoa, eta interesa duen edonork deskargatu dezake, aurrez webgunearen bitartez eskaria egin eta gero. www.elkarlan.coop

III. KOOPERATIBA IKUSPEGI SOZIETARIOTIK

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO LEGERIA APLIKAGARRIA

- 4/1993 Legea, ekainaren 24koa, Euskadiko Kooperatibena (EHAA 1993ko uztailaren 19koa)
- 1/2000 Legea, ekainaren 29koa, Euskadiko Kooperatiben Legea aldatzen duena (EHAA 2000ko abuztuaren 1a)
- 8/2006 Legea, abenduaren 1ekoa, Euskadiko Kooperatiben Legearen bigarren aldaketarena (EHAA 2006-12-15).
- 6/2008 Legea, ekainaren 25ekoa, Euskadiko Kooperatiba Sozietate Txikiei buruzkoa. (EHAA 2008-07-04)
- Euskadiko Kooperatibei buruzko 4/1993 Legearen Erregelamendua, 58/2005 eta 152/2006 Dekretuetan arautua (EHAA 2005-04-19 eta 2006-08-02).
- 59/2005 Dekretua, martxoaren 29koa, Euskadiko Kooperatiben Erregistroaren antolaketa eta funtzionamenduaren Erregelamendua onartzen duena (EHAA 2005-06-09).
- 64/1999 Dekretua, otsailaren 2koa, Herri onurako kooperatiba sozietateei dagozkien prozeduren eta betekizunen araudia onartzeko dena (EHAA 1999ko otsailaren 17koa).
- 61/2000 Dekretua, apirilaren 4koa, Gizarte Ekimeneko Kooperatibak arautzen dituena (EHAA 2000ko maiatzaren 3a).
- Agindua, 2010eko urtarrilaren 12koa, Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburuarena, Euskadiko Kooperatiba Sozietate Txikiaren urteko kontuak Euskadiko Kooperatiben Erregistroan aurkezteko administrazio eta ordezkari organoaren eskabide eredu eta ziurtagiri eredu onartzen dituena (EHAA 2010eko otsailaren 12a).
- AGINDUA, 2010eko otsailaren 27koa, Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburuarena, Euskadiko kooperatiba sozietate txikien estatutu sozialen eredu lagungarria onartzen duena (EHAA 2010eko martxoaren 30^a).

KOOPERATIBAREN DEFINIZIOA

Enpresa eta pertsona sozietate bat da –gutxienez 3 lagunekoa lehen mailako Kooperatibetan eta 2koa Sozietate Kooperatibo Txikietan–; bere organo sozialen erabakiak demokratikoki hartzen dira –bazkide bat boto bat–, kapital sozialak –gutxienez 3.000 €– bigarren mailako balioa du –bazkide bakoitzari botoa ez zaio kapitalaren arabera ematen– eta edozein jardura ekonomiko edo sozial egin dezake, Legeak debekatzen ez badu edo bere printzipio eta balioekin bateraezina ez bada.

BAZKIDEAK

- Lan Elkartuko Kooperatibetan (LEK) pertsona fisiko eta juridikoak zian daitezke bazkide eta, eratzeko orduan, hiru bazkide langile mugagabe behar dira gutxienez, bai lanaldi osoan bai lanaldi partzialean, Kooperatiba Txikietan izan ezik, bazkide langileen gutxienerako kopurua bikoa baita (/mugagabeak)
- LEK batean egon daitezkeen bazkide motak:
 - Bazkide langileak: lana eta kapitala jartzen dute.
 - Bazkide laguntzaileak: helburu soziala erabat gauzatu gabe, hori lortzen laguntzen dute.
 - Bazkide ez aktiboak edo ez erabiltzaileak: bazkide aktibo izateari utzi baina bazkide izaten jarraitu nahi dute.
- Lan Elkartukoak ez bezalako lehen mailako Kooperatibetan, estatutu sozialek lan bazkideak egotea ahalbidetu dezakete.
- Halaber, lehen eta ondorengo mailako Kooperatibetan, bazkide minoritarioak egon daitezke; Kooperatiba Mistoetan bazkideen botoak eta emaitzen partaidetza %49ra arte iritsi daiteke.
- Bazkide erabiltzaileak ere egon daitezke, bazkide kontsumitzaileak, etxebizitzetako bazkideak, bazkide garraiolariak... Kooperatiba mota zein den.
- Bazkideak onartzea administrazio organoaren eskumena da, eta bere akordioa/erabakia Batzar Nagusiaren aurrean errekurritu daiteke, onartzeko zein ez onartzeko izan.
- Bazkideek borondatez edo derrigor hartu dezakete baja Kooperatiban.
 - a. Borondatezko baja: nahi dutenean, nahiz eta Estatutuetan epe bat ezarri ohi den aurrez jakinarazteko –ez 6 hilabete baino gehiago pertsona fisikoentzat eta ez 1 urte baino gehiago pertsona juridikoentzat–.

b. Derrigorrezko baja: Estatutuetan bazkide izateko ezarritako baldintzetako betetzen ez bada.

- Bazkideek informazio eskubide oso zabal dute, baina mugak eta bermeak ere badaude, erabilera egokia izan dadin.
- Bazkideek sozietatearekin duten lotura mugagabea edo (gutxienez bi bazkide) iraupen jakinekoa izan daiteke, eta dedikazio osokoa edo partzialekoa.
- Kaaporatzea bazkideak hutsegite sozial bat edo lana egiteari lotutako hutsegite bat egin duenean baino ezin da gertatu, administrazio organoak erabakita, eta Batzar Nagusiaren aurrean errekurritu ahal izango da, aurrez berriaz bideratuta espedientearekin.

ORGANO SOZIALAK

- **Kooperatiba Txikientzat** organo hauek dira beharrezkoak:
 - a. Batzar Nagusia
 - b. Administrazio Organoa, modalitate hauen artean aukeratu beharrekoa:
 - Administratzaile Solidarioak
 - Administratzaile Mankomunatuak
 - Administratzaile Bakarra
 - Kontseilu Errektorea
- **Txikiak ez diren Kooperatibentzat** organo hauek dira beharrezkoak:
 - a. Batzar Nagusia
 - b. Administrazio Organoa, modalitate hauen artean aukeratu beharrekoa:
 - Administratzaile Bakarra
 - Kontseilu Errektorea
- Kooperatibetan beste organo fakultatibo batzuk eratu daitezke, hala nola:
 - a. Zaintza Batzordea (Kooperatibak ehun bazkide baino gutxiago baditu)
 - b. Errekurtso Batzordea
 - c. Kontseilu Soziala

BEHARREZKO ORGANOAK

A. **Batzar Nagusia**, bazkide guztiek dute bertara joateko eskubidea eta obligazioa; bere eskumeneko gaietara erabakiak hartzeko eta beste edozein gairi buruz eztabaidatzeko elkartuko da.

- Bere erabakiak bete beharrekoak dira bazkide guztientzat.
- Saioak ohikoak edo ezohikoak izan daitezke.
- Ohikoa (Gai Zerrendako gutxieneko puntuak):
 - Kudeaketa soziala aztertzea eta urteko kontuak onartzea
 - Soberakinak banatzea edo galerak egozte
- Administratzaileek deituko dute, unibertsalak denean izan ezik.
- Bazkide bakoitzak boto bat dauka (lehen mailako Kooperatibak).
- Erabakiak balioz emandako botoen erdiarekin baino gehiagorekin hartzen dira (boto zuriak eta abstentzioak konputatu gabe), Legean edo Estatutuetan gehiago indartu bat aurreikusten denean izan ezik.
- Bazkidea beste bazkide batek ordezkatu dezake, Estatutuetan norberaren presentzia ezinbestekotzat jotzen ez bada. Dena den, bazkide bakoitzak, bereaz gain, beste bi bazkideren ordezkaria izan dezake gehienez.

B. **Administratzaileak**; organo kolegiatua da –Kontseilu Errektorea (Administratzaile Mankomunatuak edo Solidarioak Sozietate Kooperatibo Txikietan)– edo pertsona bakarrekoa –Administratzaile Bakarra, bazkideak 10 edo gutxiago badira eta Estatutu Sozialetan horrela jasoarazi bada–; berari bakarrik dagokio Kooperatiba kudeatu eta ordezkatzeko, Kooperatibako beste organo sozialei esleitu gabeko eskumenez gain.

- Gutxieneko kopurua: 3 edo 1 (Kontseilu Errektorea/Administratzaile Bakarra)
- Batzar Nagusiak aukeratzen ditu bazkideen artean, baina izan daiteke horietako 1/4 bazkide ez izatea. Administratzaile Bakarra beti bazkide izan behar da. Aukeraketa isilpeko bozketaz egiten da.
- Gutxieneko karguak: Lehendakaria eta idazkaria (Kontseilu Errektoreetan).
- Agintaldia ez da 5 urte baino luzeagoa izango.
- Berritzea: aldi berean edo partziala.
- Organoaren bileren deialdia Lehendakariak egiten du, eta kideen erdia baino gehiago bertaratzen direnean eratuta geratzen da; erabakiak bertaratuen gehiengoz hartzen dira, gehiago indartua eskatzen denean izan ezik. Lehendakariak kalitate botoa dauka eta berdinketak ebatzen ditu.
- Administratzaileek eragindako kalteez erantzuneko dute, Legearen edo Estatutuaren aurka edo beharrezko ardurarik gabe jokatu badute.

KOOPERATIBA TXIKIEN BEREZITASUNAK ADMINISTRAZIO ORGANOAN

1.- Kooperatiba Txikietan, administrazio organo moduan Estatutu Sozialetan Kontseilu Errektorearen alde egiten bada, hori bi kidek osatu ahal izango dute; eta Administrazioaile Mankomunatuena, Solidarioen edo Administrazioaile Bakarraren figura ere aukeratu daiteke.

2.- Kooperatiba Txikien administrazioaile guztiek bazkide langile mugagabeak izan behar dute, baldin eta lan elkartuko Kooperatiba bada, edo lan bazkideak, ustiapen komunitarioko Kooperatiba bada.

3.- Kooperatiba Txikien administrazioaileak aldi berean berritzen dira eta agintaldia 5 urtekoa da.

C. **Zaintza Batzordea**, organo kolegiatua da, **derrigorrezkoa bakarrik kooperatibak 100 bazkide edo gehiago baldin baditu**, eta bere oinarritzko eginkizunak Batzar Nagusiak eta Administrazioaileek hartutako erabakiak ikuskatu eta kontrolatzea, legeria Kooperatiboaren arabera izan daitezten.

- Gutxienezko kopurua: 3 kide titular eta Kooperatibaren Estatutu Sozialek finkatzen dituzten ordezkariak.
- Horien agintaldia ezin da bat etorri Administrazioaileenarekin.
- Hautaketa Batzar Nagusian egingo da isilpeko bozketa bidez.
- Kooperatibak besteren konturako 50 langile baino gehiago baditu –mugagabeak izan zein ez izan–, mugagabeen artetik aukeratzeko dutena sartu beharko da Zaintza Batzordean.
- Administrazioaileek hiru hilean behin, gutxienez, informatu behar dute Zaintza Batzordea.
- Zaintza Batzordeak Kooperatibaren liburu sozialak aztertuko ditu, baita urteko kontuak ere, eta derrigorrezko txostena egingo du soberakinen banaketaz edo galeren egozketaz, nahiz eta ez duen hori egin beharrik izango Kooperatibak bere urteko kontuen auditoria egiten badu; eta Batzar Nagusiaren edo Kontseilu Errektorearen erabaki deusezen edo deuseztagarrien aurka jo ahal izango du.

ORGANO FAKULTATIBOAK

a. **Zaintza Batzordea**, organo kolegiatua eta fakultatiboa da 100 bazkide edo gutxiago duten Kooperatibentzat, beren Estatutu Sozialetan horrela ezarrita baldin badute. Gorago deskribatu ditugu bere ezaugarri nagusiak.

- b. **Errekurtso Batzordea:** Kooperatibak bere Estatutu Sozialetan ahalbidetzen duenean, Batzar Nagusian eta isilpeko botazioz aukeratu behar da; bere eginkizuna, alderen batek eskatzen duenean, beste organo sozial batzuek hartutako erabakiak berrikustea da, eta bere erabakiak bukaraziko du Kooperatiba barruko bidea.
- Eskubide osoko bazkideak bakarrik aukeratu daitezke, Kooperatibako Estatutu Sozialek ezartzen duten antzintasun, esperientzia eta egokitasuna dutenak.
 - Kide kopurua: Estatutu Sozialetan finkatuko da, titularrei zein ordezkoei dagokienez.
 - Agintaldia: Gutxienez 3 urte. Baina berriztagarria, Estatutuek mugatu ezean.
 - Erabakiak: kideen erdia baino gehiago biltzen denean eta erabakiak Estatutuetan ezarritako gehiengoekin hartzen badira. Lehendakariak ez du kalitate botorik.
 - Zehaztuta dago zein kasutan kideek ezin duten parte hartu errekurtsoen tramitazioan eta ebazpenean.
- c. **Kontseilu Soziala,** organo kolegiatua eta fakultatiboa da, kasu guztietan, eta bazkide langileak edo lan bazkideak ordezkatzeko dituen Kooperatiban egiten duten lanari dagozkion gai guztietan.
- Administrazioaileek, bazkide langileen edo lan bazkideen lan prestazioari buruzko zenbait gaitan, ezin dute erabakirik hartu aurrez Kontseilu Sozialari espresuki txosten bat eskatu gabe beren erabaki proposamenaz.
 - Osaera: bakarrik bazkide langileak edo lan bazkideak.
 - Iraupena, kargu uztea, funtzionamendua, administrazioaileek bileretan parte hartzea, soldatapeko langileekiko lan harremanak: Estatutu Sozialetan finkatu dira.

ARAUBIDE EKONOMIKOA

- **Erantzukizuna:** Bazkideek ez dute erantzukizun pertsonalik hartuko sozietatearen zorretan, eta Kooperatibarekin harpidetutako ekarpenetara mugatuko da.
- **Kapital Soziala:** bazkideen ondare ekarpenek osatzen dute, derrigorrezkoak zein borondatezkoak izan. Titulu nominatibo bidez edo partaidetza libreta edo kartila bidez egiaztatzen dira.

Gutxienez 3.000 euroko ekarpenak egin behar dira, hori delako Kooperatiba bat eratzeko behar den gutxieneko kapital soziala.

Ekarpenek itzultzeko eskubidea izan dezakete, edo Batzar Nagusiak edo administrazio organoak ukatu egin dezake itzulketa, hori guztia Estatutu Sozialetan zehazten denaren arabera.

- **Derrigorrezko ekarpenak:**

- a. Hasierako derrigorrezko ekarpena: Bazkide izaera lortzeko beharrezkoa dena. Gutxienez %25 eraketaren unean ordaindu behar da, eta gainerako %a gehienez ere 4 urteko epean.
- b. Derrigorrezko gutxieneko ekarpena: Bazkide orok une oro izan behar duena.

- **Borondatezko ekarpenak:** Batzar Nagusiak erabaki ditzake. Gainera, administrazio organoak onartu ditzake, bazkide batek libre eta bere borondatez egin nahi baditu.

- **Ekarpenen interesak:** Batzar Nagusiak finkatzen du, eta %0tik diruaren legezko interes tasarainokoa izan daiteke (gehieneko muga gizarte ekimeneko Kooperatibentzat) + 6 puntu portzental. Dena den, ezin da batere interesik ordaindu ez bada behar besteko emaitzarik lortzen edo ez badago horiek estaliko dituen erabilera libreko erreserbarik.

- **Ekarpenak eguneratzea:** Kooperatibaren balantzea erregulariza daitekeenean eta aurreko galerak estali edo konpentsatu direnean baino ezin dira ekarpenen balioa eguneratu.

- **Ekarpenak itzultzea:** baja gertatuz gero, ekarpenek itzultzeko eskubidea badute, bazkideen esku jarriko dira bere ekarpenak, baina itzulketa hori gehienez ere 5 urte ere geroratu daiteke baja hartzen denetik, diruaren legezko interes tasa ordainduta.

Baja ez bada justifikatua, derrigorrezko ekarpenen %20ra arte kendu daiteke.

Baja kanporatzeagatik gertatu bada, edo bazkide moduan itundutako gutxieneko denbora ez betetzeagatik gertatzen bada, derrigorrezko ekarpen horietan %30era arte kendu daiteke.

Ekarpenen zenbatekoa itzultzeari uko egin badakioke, 5 urteko epe hori Kooperatibak, bere organo eskumendunaren bitartez eta Kooperatibaren Estatutu Sozialetan xedatutakoaren arabera, itzulketa erabakitzen duen unetik aurrera konputatuko da.

Kooperatiba Txikietan, borondatezko baja gertatzen bada, bazkide ohiri ez litzaioke kenketarik ezarriko bere ekarpenen gainean, ezta justifikatu gabetzat jotzen bada ere.

- **Soberakinen banaketa:** Behin zergak ordaindu ondoren eta, hala badagokio, beste ekitaldi batzuetako galerak konpentsatuta, ondorengo emaitza honela batuko da:
 - %20 edo %25 Derrigorrezko Erreserba Fondora (gutxieneko %ak)
 - %10 edo %5 Heziketa eta Kooperatiba Sustapenerako eta Interes Publikoko beste helburu batzuetarako Derrigorrezko Kontribuziora (gutxieneko %ak)
 - Gainerakoa: Batzar Nagusiak nahi bezala, helmuga hauen barruan:
 - a. Bazkideentzako erretornuak, Kooperatibarentzat egin dituzten zerbitzu, operazioen edo jardueren proportzioan (gizarte ekimeneko Kooperatibetako bazkideei ezin zaie erretornurik banatu).
 - b. Borondatezko Erreserba Fondoak sortzea edo hobetzea:
 - Banagarriak
 - Banaezinak
 - c. Soldatapekoen partaidetza
 - d. Derrigorrezko Fondoak hobetzea
- **Galeren egozpena:** Kooperatibaren galerak Estatutu Sozialetan finkatutako irizpideen arabera konpentsatu ahal izango dira, arau hauek errespetatuz:
 - Borondatezko Erreserba Fondoetara (galera guztiak egotz daitezke).
 - Derrigorrezko Erreserba Fondora azken 5 urteetan emaitza positiboekin Derrigorrezko Fondoetara bideratutakoaren %a.
 - Gainerakoa bazkideei egotziko litzaieke berehala edo gehienez ere 5 urteko epean, dagozkien erretornuen kargura.

Halaber, Batzar Nagusiak galerak kontu berezi batera egozte erabaki dezake, Kooperatiban gehienez ere hurrengo 5 urteetan izan daitezkeen emaitza positiboaren kargura.

IV. ERAKETA PROZESUA

- Aurretiazko urratsa: ziurtagiriak, aitortuz ez dagoela izen bereko beste sozietaterik; horiek Euskadiko Kooperatiben Erregistroari eta Enplegu eta Gizarte Segurantzako Ministerioko Sozietate Kooperatiboaren Erregistroari eskatuko zaizkio. Euskadiko Kooperatiben Erregistroa garatzen duen dekretua da 59/2005 Dekretua, martxoaren 29koa, Euskadiko Kooperatiben Erregistroaren antolaketa eta funtzionamenduaren Erregelamendua onartzen duena (EHAA 2005-06-09).
- Ziurtagiri horiek sustatzaileek sozietatearen izena –enpresaren izena– argi dutenean eskatzen dira, eta hitz edo laburdura gehituko dizkiete:
 - Sozietate Kooperatibo Txikiarentzat:
 - Sozietate Kooperatibo Txikia.
 - S. Koop. Txikia.
 - Txikia ez den Sozietate Kooperatiboarentzat:
 - Sozietate Kooperatiboa edo
 - S. Koop.
- Kooperatibaren konfigurazio sozietarioa hartzen duten Sozietate Profesionalentzat, aurreko izenari PROFESIONALA hitza gehituko zaio, edo “P” letra, eta Merkataritza Erregistro Nagusian ere eskatu beharko da.
- Kooperatiba bat eratzeko, sustatzaileek Eraketa Batzarra egingo dute, zeinean denak elkartuko diren, eta Estatutu Sozialak eta sozietatea eratzeko beharrezko erabakiak onartuko dituzte.
- Sustatzaileek euren artetik aukeratutako kudeatzaileek Euskadiko Kooperatiben Erregistroan aurkeztu ahal izango dituzte Eraketa Batzarrean onartutako Estatutu Sozialak, eskritura publiko bihurtu aurretik, kalifika ditzaten, adieraziz zuzenak diren edo akatsik duten eta ezin diren.
- Estatutu Sozialek gutxienez ondorengo alderdiak arautu eta eduki beharko dituzte:
 - Sozietatearen deitura –enpresaren izena–.
 - Egoitza soziala –helbidea–.
 - Sozietatearen xedeko jarduera –adibidez, “informatika zerbitzuak egitea”–.
 - Iraupena –denbora jakin baterako eratzen den ala mugagabea den–.
 - Jarduera nagusiaren lurralde esparrua.

- Bazkideak onartzeko eta irteteko baldintzak.
 - Bazkideen eskubideak eta betebeharrak, bazkideek jarduera kooperatiboetan parte hartzeko gutxieneko konpromisoa finkatuz.
 - Diziplina sozialeko arauak, hutsegiteen tipifikazioa, zigorrak eta prozedurak eta errekursoak.
 - Gutxieneko kapital soziala –gutxienez hiru mila euro–; bazkideen hasierako derrigorrezko ekarpena zehaztea.
 - Bazkideen ekarpenak itzultzeko eskubidea eta horiek eskualdatzeko araubidea.
 - Soberakinak banatzeko irizpideak (emaitzak ken zergak) eta Derrigorrezko Fondo Sozialetara gutxienez bideratuko diren portzentajeak zehaztea.
 - Batzar Nagusira deitzeko publizitate era eta epea, lehen edo bigarren deialdian, eta erabakiak onartzeko araubidea.
 - Administrazio organoaren jokabidea eta egitura.
 - Hala badagokio, Zaintza Batzordearen osaera eta eginkizunak, baita Errekurso Batzordearenak eta Kontseilu Sozialarenak ere.
 - Kooperatiba desegiteko kausak.
- Sozietate Kooperatibo Txikiek Estatutu sozialen eredu orientagarri bat dute, Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburuaren 2010eko otsailaren 27ko aginduan onartua (EHAA 2010eko martxoaren 30a).
 - Kooperatiba eskritura publiko bidez eratuko da, 2 hilabeteko epean, Eraketa Batzarra egiten denetik edo Estatutu Sozialen aurretiazko kalifikaziotik aurrera.
 - Eskritura publikoa Foru Ogasun eskumendunera helaraziko da IFZ lortzeko eta egintza inskribagarriari dagozkion zergak kitatzeko; gero, Euskadiko Kooperatiben erregistrora eramango da inskribatzeko.
 - Kooperatibak Euskadiko Kooperatiben Erregistroan inskripzioa egiten duenean hartuko du nortasun juridikoa, Sozietate Kooperatibo Profesionalen kasuan izan ezik, horien nortasuna Merkataritza Erregistroan inskribatuz lortzen baita, ondoren Euskadiko Kooperatiben Erregistroan inskribatzearen kalterik gabe.
 - Kooperatiba Txikiaren Eraketa Eskritura eta Estatutu Sozialak kalifikatu eta inskribatzeko epea 30 egunekoa da, inskribatzeko eskaera aurkezten denetik zenbatzen hasita.

V. UDAL LIZENTZIAK ETA BESTE IZAPIDE ADMINISTRATIBO BATZUK

SARRERA

Negozio bat abiarazteko udal izapide guztiak zehatz-mehatz ezagutzeko, jarduera zertu nahi den herriko udalera jo behar da eta bertan zuzenean informatu; adibidez, Bilbon webgune honetara (www.bilbao.eus); Donostian honetara (www.donostia.eus); eta Gasteizen honetara (www.vitoria-gasteiz.org).

Lokal edo bulego batean ustekaberik ez izateko, bai erosi nahi delako bai alokatu daitekeelako, komeni da aurrez negozioa edo enpresa jarduera kokatu nahi den udalerriko udaletxean kontsulta egitea, hori Irekitzeko Lizentzia lortzeko aukera jakiteko. Kontsulta egiteko, eta bere erantzuna oro har loteslea izan ohi da, hainbat dokumentu aurkeztu behar dira jarduera motari buruz, lokalaren ezaugarriei buruz, kokapenari buruz, etab.

OBRA LIZENTZIA

Edozein obra mota egiteko derrigorrezkoa da dagokion Lizentzia lortzea, eta, horretarako, hirigintzako udal araudia ezagutu behar da, baita obra mota bakoitzerako behar den dokumentazioa ere.

OKUPAZIO LIZENTZIA

Obra Lizentziaren eskaerako instalazioak amaitu eta gero, beharrezkoa da horiek ikuskatzea, onartutako proiektuari dagozkiola egiaztatzeko.

IREKITZEKO LIZENTZIA EDO BAIMENA

Obrarik egin behar ez bada, edo horiek burututakoan, Udalari Irekitzeko Lizentzia edo Baimena eskatu behar zaio, jarduera garatzen hasi ahal izateko, eta, horretarako, lokalak ireki eta jartzeko lizentziari dagokion tasa ordaindu beharko da.

Hainbat jarduerak ez dute horrelako Lizentziarik behar. Dena dela ere, Kapitulu honen sarreran azpimarratu den bezala, Irekitzeko Lizentzia edo Baimena behar den ala ez jakiteko, komeni da Udaletxean dagokion kontsulta egitea.

ZENTSUKO ALTA

Enpresa kooperatiboari Zentsu Aitorpenaren bitartez (036 inprimakia) ematen zaio alta zentsuan.

IDENTIFIKAZIO FISKALEKO ZENBAKIA ESKATZEA (IFZ)

IFZ enpresa zerga ondorioetarako identifikatzen duen zenbaki bat da. Identifikazio Fiskaleko Zenbakia (IFZ) enpresaren kokapenaren arabera dagokion Lurralde Historikoko Foru Aldundian eskatzen da (Ogasun eta Finantza Departamentua), dagokion aitorpen ereduia betez (036 inprimakia), eta horri eraketa agiriaren kopia bat gehitu behar zaio, eta hasieran behin-behineko IFZ jasoko da.

ONDARE ESKUALDAKETEN ETA EGINTZA JURIDIKO DOKUMENTATUEN GAINEKO ZERGAREN AITORPENALIKIDAZIOA

VI. Kapituluari jasotzen denez (KOOPERATIBAREN FISKALITATEA), Kooperatibek, bere eraketan (baita ere operazio sozietarioen beste kasu batzuetan) zerga honetatik salbuetsita daude, baina, halere, salbuespen hori zergaren Aitorpen-Likidazioan jasoarazi behar da, eta dagokion Foru Ogasunaren aurrean tramitatu behar da, enpresa kokatuta dagoen edo kokatuko den Lurralde Historikokoaren arabera, 30 egun balioduneko epean,, raketa eskritura sinatzen denetik kontaktzen hasita.

ALTA EKONOMIA JARDUEREN GAINEKO ZERGAN (EJZ)

EJZ zuzeneko zerga bat da, enpresaburu, profesional edo artisten jarduerak zergapetzen dituena. Kuota udal, probintzia edo estatu mailakoa izan daiteke. Altaren Aitorpena Foru Ogasunean aurkeztu behar da, edo jarduera zertuko den lekuko Udaletxean. Altaren aitorpena jarduera hastearekin bat aurkeztuko da.

Tokiko Zerga Ordainketarako Araubidearen erreformaren ondorioz (Bizkaian: 7/2003 Foru Araua, martxoaren 26koa -BAO 2003-03-11-; Araban: 12/2003 Foru Araua, martxoaren 31koa -ALHAO 2003-04-14-; Gipuzkoan: 4/2003 Foru Araua, martxoaren 19koa -GAO 2003-03-25- eta estatuan 51/2002 Legea, abenduaren 27koa, -BOE 2002 -12-28) EJZtik salbuetsita daude lehen 2 urteetan jarduera berri bat hasten duten subjektu pasibo guztiak, eta, Udalek nahi badute, %50eko hobaria eman diezaiekete ondorengo 5 urteetan.

Inprimakia 840 da, 036 inprimakiarekin egitea nahikoa denean izan ezik.

Halaber, salbuetsita daude urtean 2 milioi euro baino gutxiagoko eragiketarik dituzten Kooperatibak.

Hala ere, bere Udalerrian EJZren ordenantza fiskalak ahalbidetzen badu, Kooperatibek kuotaren %95erainoko hobaria izan dezakete salbuetsita egon ondorengo urteetan.,

LATA BALIO ERANTSIAREN GAINEKO ZERGAN (BEZ)

BEZa zeharkako zerga da, kontsumoaren gainekoa, eta enpresaburuek edo profesionalak egindako ondasun emateak edo zerbitzu emateak zergapetzen ditu.

Zerga honetako alta Ekonomia Jardueraren gaineko Zerga (EJZ) aldi berean tramitatzen dira.

Hala ere, alta aitorten horren aldetik, “eragiketarako hasi aurreko aitortpena” izeneko figura bat dago, eta bere helburua jarduera benetan hasi aurretik egindako inbertsioetan ordaindutako BEZa berreskuratzeko mekanismoa aktibatzea da, zeina 036 inprimakiaren bidez egiten den hori ere.

Zerga hori hainbat araubideren menpe dago, eta bakoitzean aldatu egiten dira zerga betebeharrak.

ALTA GIZARTE SEGURANTZAN

Kontuan izanda Sozietate Kooperatiboek ezaugarri bereziak dituztela Gizarte Segurantzarekiko harremanetan, alderdi hau berriaz lantzen da Gida honen VII. Kapituluaren.

LANTOKIA IREKITZEA JAKINARAZTEA

Eusko Jaurlaritzako Lan eta Gizarte Segurantzako Lurralde Ordezkaritzak ematen duen inprimakiaren bitartez jakinarazi behar da, ireki eta hurren 30 eguneko epearen barruan, lantokian langileak ari badira zerbitzua egiten.

LANTOKIA IREKITZEA JAKINARAZTEA

Kooperatibaren helbide soziala dagoen Lan eta Gizarte Segurantzako Lurralde Ordezkaritzan egingo da.

Inprimaki Internetetik deskarga daiteke, helbide honetan:

<http://www.gizartelan.ejgv.euskadi.eus>

Are gehiago, zuzenean tramita daiteke Internet bidez, Kooperatibak sinadura digitalaren identifikazio txartela badauka, zeina lizenpeko edo ziurtagiri digitalak

emateko FNMT bezalako beste erakunde batzuek ematen duten. Hori lortzeko eta baldintzak ikusteko, webgune hauek interesgarriak dira:

www.izenpe.com

www.cert.fnmt.es

PATENTEAK ETA MARKAK

Patente eta Marken Espainiako Bulegoaren webgunea bisitatzea gomendatzen da: www.oepm.es.

LANEKO ARRISKUAK PREBENITZEKO PLANA

Kooperatibek bete egin behar dituzte arlo horretan indarrean dauden araudiak eta, horregatik, martxan jarri behar dituzte laneko istripuen arriskuak saihestu edo gutxitzeko prebentzio politikak. Gomendatzen da bisitatzea OSALANen webgunea (www.osalan.euskadi.eus) eta Enplegu eta Gizarte segurantzako Ministerioaren (www.empleo.gob.es) Laneko Segurtasun eta Higiene Institutuarena (www.insht.es).

DATUEN BABESA

Datu pertsonalak dituzten fitxategi informatikoak sortzen direnean, Kontuan hartu behar da, "Datu Pertsonalak Babesteko 15/99 Lege Organikoak, abenduaren 13koak" ezarritako betebeharrak kontuan izan behar direla, baita hori garatzen duten gainerako xedapenak ere, eta, horretarako, Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren webgunea bisitatzea iradokitzen dugu: <http://www.avpd.euskadi.eus>, baita Datuak Babesteko Espainiako Bulegoarena ere: <http://www.agpd.es>

BISITA LIBURUA

Ekintzaileei laguntzeko 14/2013 Legeak, irailaren 27koak, desagertu egin zen enpresek lantoki bakoitzean Lan eta Gizarte segurantzako Ikuskaritzako funtzionarioen esku Bisita Liburu bat edukitzeko betebeharra, eta horren ordez Bisita Liburu Elektroniko bat ezarri zen.

Gaur egun, Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskatzailtza Sistema arautzen duen 23/2015 Legearen, uztailaren 21koaren, 21.6 artikulua xedatzen duenez, Funtzionario jarduleek jarduketa bakoitzaren eginbidea helaraziko dute, idatziz, eta horren formatua 1452/2016 ESS Aginduan, ekainaren 10ekoan, onartu zen.

Horrenbestez, Kooperatiba berriek ez dute euren lantokietan Liburu Bisita edukitzeko betebeharririk.

VI. KOOPERATIBAREN FISKALITATEA

ARAUDI FISKALAK

Kontuan izanda zerga legerian aldaketak, arinagoak edo sakonagoak, izan direla denboran zehar, hemen Gida hau argitaratzeko garaian Kooperatibei aplikatzeko indarrean dauden zerga arauak hartu ditugu kontuan, nahi eta Foru Arauetako batzuk aldatu egin diren puntualki, argitaratu ondoren promulgatutako xedapenen bidez:

2/1997 Foru Araua, maiatzaren 22koa, Gipuzkoako Kooperatiben Zerga Erregimenari buruzkoa (GAO 1997-05-30), zeina hainbat foru xedapenek aldatu duten partzialki.

9/1997 Foru Araua, urriaren 14koa, Bizkaiko Kooperatiben Zerga Erregimenari buruzkoa (BAO 1997-11-03), zeina hainbat foru xedapenek aldatu duten partzialki.

16/1997 Foru Araua, ekainaren 9koa, Arabako Kooperatiben Zerga Erregimenari buruzkoa (ALHAO 1997-06-18), zeina hainbat foru xedapenek aldatu duten partzialki.

KOOPERATIBA MOTAK ZERGA ONDORIOETARAKO

Zerga arloan babestutako Kooperatibak honela sailkatzen dira aipaturiko Lege horretan:

- Kooperatiba Babestuak
- Kooperatiba Bereziki Babestuak

KOOPERATIBA BABESTUAK

Euskadiko Kooperatiben 4/1993 Legearen, ekainaren 24koaren, edo Euskadiko Kooperatiba Sozietate Txikiei buruzko 6/2008 Legearen, ekainaren 25ekoaren, printzipio eta xedapenak betetzen dituzten eta zerga arloan babestutako izaera galtzeko inolako kausatan sartuta ez dauden Sozietate Kooperatiboak dira.

KOOPERATIBA BABESTUEI AITORTUTAKO ZERGA ONURAK

1. Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergan

Salbuespena ondorengo egintza, kontratu eta eragiketetan:

- a. Eraketa, kapital handiagotze, bat egite eta banatzeko egintzak.
- b. Maileguak eratzea eta kitatzea, baita obligazioak ere.
- c. Bere helburuak betetzeko Derrigorrezko Kontribuzioan sartuko diren ondasunak eta eskubideak eskuratzea.

2. Sozietateen gaineko Zergan

a. Zerga tasak

- Orokorra: %20. Kreditu Kooperatibak izan ezik, %28 baita.
- Neurri txikiko Kooperatibak: %18.

b. Amortizatzeko askatasuna

- Aktibo berri amortizagarriaren elementuei dagokienez, aukera hori izango dute Euskadiko Kooperatiben Erregistroan inskripzioa egin ondorengo hiru urteetan elementu horiek eskuratu zituzten Kooperatibek.

- Zerga arloan kendu daitekeen kopuruak –amortizazio askatasunaren izenean, ekitaldi bakoitzean amortizazio arrunta egin ondoren (sekula ez ezarritako gutxienekoa baino txikiagoa)– ezingo da izan Kooperatibaren emaitzen kontuko saldoaren zenbatekoa baino handiagoa. Hori derrigorrezko Erreserba Fondora egin beharreko ekarpenak kenduta eta, hala badagokio, baita soberakin garbi erabilgarrietatik soldatapeko langileei ordaintzen zaizkien kopuruak ere.
- Amortizazio askatasuna bateragarria da Sozietateen gaineko Zerga arautzen duten FORU ARAUETAN aurreikusitako inbertsioekin.
- Amortizazio askatasuna aukerakotzat jotzen da, eta autolikidazioa aurkeztuz gauzatu behar da.

3. Ondasun Higiezinaren gaineko Zergan

- Kuotaren eta, hala badagokio, errekarpenen %95 hobaria.
- Nekazaritzako Kooperatibaren edo Lurra Erkidegoan Ustiatzeko Kooperatibaren landa ondasunei buruz bakarrik.

KOOPERATIBA BEREZIKI BABESTUAK

Kooperatiba Bereziki Babestuak mota hauetako lehen mailako Kooperatiba babestuak dira:

- a. Lan Elkartuko Kooperatibak
- b. Nekazaritza Kooperatibak
- c. Erkidegoan Ustiatzeko Kooperatibak
- d. Kontsumo Kooperatibak
- e. Irakaskuntza Kooperatibak
- f. Etxebizitza Kooperatibak

Dena den, Kooperatiba mota horiek, bereziki babestuz jotzeko, mota bakoitzerako Foru Arauetan ezarritako dauden betebeharrak bete eta mantendu behar dituzte, eta zerga arloan babesturiko Kooperatiba izaera galtzeko arriskurik ez izan.

KOOPERATIBA BEREZIKI BABESTUEI AITORTUTAKO ZERGA ONURAK

1. Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergan

- Kooperatiba Babestuei aitortutako onura guztiak.
- Zerga salbuespena, zuzenean bere helburu sozial edo estatutuzkoak betetzeko diren ondasunak eta eskubideak eskuratzeko eragiketetan.

2. Sozietateen gaineko Zergan

- a. Kooperatiba Babestuei aitortutako onura guztiak.
- b. %50eko dedukzioa zergaren kuota likidoan. Dedukzioa aukerakotzat gauzatu behar da Autolikidazioan.
- c. Zergaren kuota osoaren %75eko dedukzioa Nekazaritzako Kooperatiba bereziki babestuentzat, Nekazaritzako ustiategiaren modernizazioari buruzko 19/1995 Legeak, uztailaren 4koak, dioenaren arabera, lehentasunezko elkarte ustiategi badira. Dedukzioa aukerakotzat gauzatu behar da Autolikidazioan.
- d. Bereziki babestutako lan elkartuko Kooperatibek, bazkide desgaituak gutxienez %50 badira eta, Kooperatiba eratzeko unean, bazkide horiek langabezia badaude, Sozietateen gaineko Zergaren kuota likidoaren %90eko dedukzio bat izango dute jardura sozialaren lehen bost urteetan, bazkideen portzentaje hori mantentzen bada.

HERRI ONURAKO KOOPERATIBENTZAT ETA GIZARTE EKIMENEN KOOPERATIBENTZAT ONARTUTAKO ZERGA ONURAK

1. Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergan

Kooperatiba babestuei eta bereziki babestuei aitortzen zaizkien onura berdinak.

2. Sozietateen gaineko Zergan

Irabazi asmorik gabeko entitateen zerga erregimenaren eta mezenasgoaren aldeko zerga pizgarrien Foru Arauetako 7. artikulutik 16.era xedatutako zerga erregimenaren aplikazioa (Araban, 16/2004 F.A., uztailaren 12koa; Bizkaian, 1/2004 F.A., apirilaren 7koa; eta Gipuzkoan, 3/2004 F.A., apirilaren 7koa).

3. Tokiko zergetan (OHZ, EJZ...)

Irabazi asmorik gabeko entitateen zerga erregimenaren eta mezenasgoaren aldeko zerga pizgarrien Foru Arauetako 17. artikuluan xedatutako zerga erregimena (Araban, 16/2004 F.A., uztailaren 12koa; Bizkaian, 1/2004 F.A., apirilaren 7koa).

Gipuzkoan, Irabazi asmorik gabeko entitateen zerga erregimenaren eta mezenasgoaren aldeko zerga pizgarrien 3/2004 F.A.ren, apirilaren 7koaren, 17. artikulua indargabetu egin zen Udal zergen

esparruan zenbait aldaketa sartzen dituen 4/2012 Foru Arauaren,
uztailaren 4koaren, ondorioz.

ELKAR-LAN, S. COOP.

VII. GIZARTE SEGURANTZA KOOPERATIBETAN

Sozietate Kooperatiboak, Estatutu Sozialetan bere bazkide langileentzat nahi duen Gizarte Segurantzako Erregimena hautatu beharko du ondorengo artetik:

- Gizarte Segurantzako Erregimen Orokorra
- Langile Autonomoen Erregimen Berezia

Erregimen bat edo bestea hautatzeak bere garrantzia du, bai estaldurei dagokienez bai kostuei dagokienez, eta hori agerikoa da, baina aldi berean kontuan hartu behar da Kooperatiba eratzeko garaian.

Kooperatibaren bizitzan zehar erregimena aldatu badaiteke ere, aldatzeko eskatzen den baldintza da gutxienez 5 urteko epea igaro behar dela lehenago egin zen hautaketatik.

Gizarte Segurantzako Erregimen Orokorri dagokionez, gaur egun, bazkide langileek edo lan bazkideek besteren konturako langileekin duten desberdintasun bakarra da, harreman sozietarioa delako eta ez lan harremana, ez dituztela Soldatak Bermatzeko Fondoaren prestazioak (FOGASA), Kooperatibak ez dutelako estaldura horregatik kotizatu behar bazkide langileentzat edo lan bazkideentzat.

Autonomoen Erregimen Berezian kotizazio oinarri bat aukeratu behar da, gutxieneko eta gehieneko oinarrien artean, adinaren arabera; oinarriak urtero finkatzen dira Estatuko Aurrekontu Orokorretan, eta gaur egun jarduerari uzteagatiko prestazioak ere badituzte, betiere lan istripuaren eta gaixotasun profesionalaren prestazioa estaltzea erabaki badute.

Euren bazkide langileentzat edo lan bazkideentzat erregimen orokorra aukeratu dute Kooperatibetan, langabeziaren prestazioa egoera hauetan ematen da:

1.- Bazkide langileak edo lan bazkideak ez du probaldi gainditu, administrazio organoaren iritziz (izan kontseilu errektorea/administratzaile bakarra/administratzaile solidarioak edo mankomunatuak).

2.- Bazkide langilea edo lan bazkidea bidegabeki kanporatu dutenean.

3.- Bazkide langilearen edo lan bazkidearen sozietate kontratua behin betiko deuseztatzen denean arrazoi ekonomikoengatik, teknikoengatik, antolamendukotik, produkziokotik edo halabeharrez.

4.- Bazkide langile edo lan bazkide baten iraupen jakineko sozietate kontratua amaitzen denean, epea amaitu delako.

5.- Bazkide langilearen edo lan bazkidearen sozietate kontratua behin-behinean deuseztatzen denean arrazoi ekonomikoengatik, teknikoengatik, antolamendukotik, produkziokotik edo halabeharrez.

6.- Bazkide langilearen edo lan bazkidearen lanaldi behin-behinean murrizten denean, arrazoi ekonomikoengatik, teknikoengatik, antolamendukotik, produkziokotik edo halabeharrez.

Langabezi prestazioaren tramitazioak deskribatutako egoera bakoitzerako aurreikusitako berezitasunak ditu, gaia arautzen duten xedapenen arabera, zeinak ondoren zerrendatzen diren:

- 1043/1985 ERREGE DEKRETUA, ekainaren 19koa, Lan Elkartuko Kooperatibetako bazkide langileen langabeziaren babesa zabaltzen duena.
- 42/1996 ERREGE DEKRETUA, urtarrilaren 19koa, Lan Elkartuko Kooperatibetako bazkide langileen langabeziaren babesa zabaltzen duena, behin-behineko etenaldiengatik edo lanaldia behin-behinean murrizteengatik.

RETAn sartutako eta estaldura hori duten bazkide langileentzat edo lan bazkideentzat, jarduerari uzteagatik prestazioa behin betiko edo behin-behinean eteten den egoera hauetan ematen da:

- a.- Kooperatibatik bidegabeki kanporatzea.
- b.- Arrazoi ekonomiko, tekniko, antolamenduko, produkziokoengatik edo halabeharrez.
- c.- Iraupen jakineko lotura mugatu zuen aldia amaitu delako.
- d.- Jenero indarkeriagatik, bazkide langileengan.
- e.- Kooperatibaren lizentzia administratiboa galtzeagatik.
- f.- Kooperatibaren administrazio organoaren erabaki aldebakarrez jarduera utzi behar duten probaldiko bazkidegaiak.

Aipatutako hipotesi bakoitzerako, jarduera uzteagatik prestazioaren tramitazioa honako araudi honetan jasotzen da:

- Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testu bategina onartzen duen 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren, urriaren 30ekoaren, 335. artikulua (BOE 2015-10-31)
- 1541/2011 Errege Dekretua, urriaren 31koa, langile autonomoek jarduera utzi ostean babesteko berariazko sistema ezartzen duen abuztuaren 5eko 32/2010 Legea garatzen duena.

Edonola ere, sustatzaileek euren denbora hartu behar dute eta erregimen baten eta besteren arteko desberdintasunak, estaldurak eta bakoitzaren kostuak aztertu, gehien komeni zaiena hautatzeko, kontuan hartuta aukeraketak hautatutako erregimenean gutxienez 5 urte egotera behartzen dituela.

ELKAR-LAN, S. COOP.

VIII. KOOPERATIBENTZAKO LAGUNTZA BEREZIAK

Kooperatibak eratzeko dauden laguntza berezien artean, beharbada preziatuena eta ezagunena Langabeziaren Prestazioa izango da, ordainketa bakarraren modalitatean, prestazio horretarako eskubidea sortu duten pertsonentzat.

Gainera, urtero, Administrazio Publikoek, eta bereziki Eusko Jaurlaritzako Lan eta Justizia Sailak, Gizarte Ekonomiako zuzendaritzaren bitartez, Gizarte Ekonomiako Sozietateak sortzeko laguntza programa bereziak diseinatzen dituzte; horien artean daude Kooperatibentzako eta bere bazkideentzako zuzeneko laguntzak, baita Kooperatibentzako laguntza teknikorako laguntzak ere.

Ondoren, **Langabeziaren Prestazioen Kapitalizazioa** aztertuko dugu, **Ordainketa Bakarraren modalitatean**.

Araudia

- Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testu bategina onartzen duen 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren, urriaren 30ekoaren, 296-3 artikulua (BOE 2015-10-31).
- 1044/1985 E.D., ekainaren 19koa, langabeziako prestazioaren ordainketa, ordainketa bakarreko modalitatean, bere zenbatekoaren egungo balioagatik, enplegua sustatzeko neurri gisa (BOE 1985-07-02).
- Langile autonomo eta sozietate kooperatibo eta lan sozietateentzat presako enplegu neurriei buruzko 1300/2009 Errege Dekretuaren, uztailaren 31koaren, 1 artikulua (BOE 2009-08-019).
- Gizarte Ekonomiari buruzko 5/2011 Legearen, martxoaren 29koaren, 10. artikulua, Autoenpleguaren arloko araudia aldatu eta eguneratzen duen eta lan autonomia eta gizarte ekonomia bultzatu eta sustatzeko neurriak hartzen dituen 31/2015 Legearen, irailaren 9koaren, erredakzioaren arabera (BOE 2015-09-10).

Onuradunak

Langabeziako prestazioen titularrak, ordaindutakoaren modalitatean, gutxienez hiru hileko geratzen bazaizkie hartzeko eta Kooperatiban sartzen badira, edo bazkide langile edo lan bazkide gisa Kooperatiba eratzen badute denbora mugagabez, lanaldi osorako edo lanaldi partzialerako.

Posible da Kooperatibarekin aurrez kontratu loturarik eduki izana –lan harremana zein sozietate harremana izan–.

Laguntza

Langabeziako prestazioagatik dagozkion hartzeko guztiak jartzen dira pertsonaren esku ordainketa bakarrean, betiere zenbateko hori Kooperatibak eskatzen duen derrigorrezko ekarpenaren berdina edo txikiagoa baldin bada, eta dagokionean borondatezkoarena, eta Kooperatibak bazkide izateko eskatzen duena sarrera kuotaarena. Hartu beharreko zenbatekoa kapital sozialerako ekarpenak eta sarrera kuota baino handiagoa bada, aukera dago SEPEk bazkide eskatzaileari diferentziaren zenbatekoa ordaintzeko, hiru hilean behin, bazkide langilearen Gizarte Segurantzako kotizazioa laguntzeko, bazkideek SEPEri kotizazio agiriak aurkeztu eta gero.

Baldintzak

- a. Ordaindutakoaren arabeko langabeziako prestazio baten onuraduna izatea eta gutxienez hiru hileko jaso gabe edukitzea.
- b. Sozietate Kooperatibo bat eratzeko asmoa izatea, edo lehendik eratutako batean sartzea bazkide langile gisa; berria baldin bada, Estatutuen proiektua eta Kooperatiba enpresaren proiektua (bideragarritasun plana) aurkeztu behar ditu.
- c. Kooperatibaren kapital sozialerako ekarpen gisa sartzea eta, dagokionean, sarrera kuota gisa.
- d. Kooperatiban bazkide langile lan bazkide mugagabe moduan sartzea, lanaldi osoan edo partzialean.
- e. Aurre.aurreko lau urteetan eskubide horretaz baliatu ez izana.
- f. Prestazioen kapitalizazioa eskatu aurretik jarduerari ez ekitea.

Eskaera

Prestazioaren onuraduna inskribatuta dagoen SEPEren bulegoan.

Jarduerari uzteagatik prestazioak jasotzen ari diren pertsonari dagozkien prestazioen ordainketa bakarra ere eskatu liteke, 32/2010 Legea, abuztuaren 5koa, garatzen duen 1541/2011 Dekretuak, urriaren 31koak, Laugarren Xedapen Gehigarrian ahalbidetzen denez, betiere inguruabar hauek elkartzen badira:

- a.- Jarduera uzteagatik prestazioa gutxienez sei hilabete jaso gabe edukitzea.
- b.- Lan Elkartuko Kooperatiba batean bazkide langile moduan jarduera profesional bat egingo duela egiaztatzea.
- c.- Kooperatiba berri bat sortu behar bada, proiektuaren bideragarritasunaren azalpen memoria bat aurkeztea, edo Kooperatiba batean sartzeko eskaria egin izanaren ziurtagiria, ondoren onarpen erabakia ere aurkeztu beharko delarik.

ELKAR-LAN, S. COOP.

IX. KOOPERATIBEI LOTUTAKO HELBIDE ERABILGARRIAK

1. ELKAR-LAN, S. COOP (KOOPERATIBAK SUSTATZEKO ELKARTEA)

San Bizente kalea 8, 9. ezk. (Albia II eraikina).
48001BILBO
Tel.: 944 703 760
Fax: 944 703 761
Posta elektronikoa: elkarlan@elkarlan.coop
Web: www.elkarlan.coop

2. ERKIDE (EUSKADIKO LAN ELKARTU, IRAKASKUNTZA, KONTSUMO ETA KREDITU KOOPERATIBEN FEDERAZIOA)

Nafarroako Errege-erreginak, 51
01013 VITORIA-GASTEIZ
Tel.: 945 12 20 50
Fax: 945 25 39 59
Posta elektronikoa: erkide@erkide.coop
Web: www.euskoop.org

3. EUSKADIKO KOOPERATIBEN KONFEDERAZIOA

Nafarroako Errege-erreginak, 51
01013 VITORIA-GASTEIZ
Tel.: 945 12 20 53
Fax: 945 25 39 59
Posta elektronikoa: ekk@konfekoop.coop
Web: www.konfekoop.coop

4. EUSKADIKO KOOPERATIBEN GOREN KONTSEILUA

Nafarroako Errege-erreginak, 51
01013 VITORIA-GASTEIZ
Tel.: 945 12 11 55
Fax: 945 25 39 59
Posta elektronikoa: info@csce-ekgk.coop
Web: www.csce-ekgk.coop

5. EUSKO JAURLARITZAKO LAN ETA JUSTIZIA SAILA

WEB: www.euskadi.net

GIZARTE EKONOMIAKO ZUZENDARITZA Euskadiko Kooperatiben Erregistroa

Donostia-San Sebastian kalea, 1 LAKUA
01010 VITORIA-GASTEIZ
Tel. 945 019 083
Fax: 945 019 109

Laneko Lurralde Ordezkaritzen helbideak eta telefonoak:

- Araba
Samaniego kalea 2-2.a
01008 Vitoria-Gasteiz
Tel: 945 017 030
Posta elektronikoa: trabajoaraba@euskadi.eus
- Bizkaia
Kalte Nagusia 85.
48011. Bilbo.
Tel. 944 031 216.
Posta elektronikoa: trabajobizkaia@euskadi.eus
- Gipuzkoa
Vitoria-Gasteiz kalea, 3.
20018 Donostia.
Tel. 943 202 324.
Posta elektronikoa: trabajogipuzkoa@euskadi.eus

6. BIZKAIKO FORU ALDUNDIA (ENPLEGU, GIZARTE INKLUSIO ETA BERDINTASUN SAILA)

WEB: <http://web.bizkaia.eus/es/empleo-inclusion-social-e-igualdad>

Rekalde zumarkalea, 30
48009 BILBAO
Tel. 944 068 000

7. BIZKAIKO FORU ALDUNDIA (EKONOMIA ETA LURRALDE GARAPENeko SAILA)

WEB: <http://web.bizkaia.eus/es/desarrollo-economico-y-territorial>

Orueta Apezpikuaren kalea, 6
48009 BILBO
Tel. 944 068 000

8. GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA (EKONOMIA SUSTAPEN, LANDA INGURUNE ETA LURRALDE OREKAKO DEPARTAMENTUA)

WEB: <http://www.gipuzkoa.eus/es/diputacion/promocion-economica-medio-rural-y-equilibrio-territorial>

Gipuzkoa ekintzailea: <http://www.gipuzkoaempresadora.net>

Gipuzkoa plaza z.g. (behegaina)
20004 DONOSTIA
Tel.: 943 112 111
Fax: 943 429 961

9. ARABAKO FORU ALDUNDIA (ENPLEGU, MERKATARITZA ETA TURISMO SUSTAPENEN ETA FORU ADMINISTRAZIOKO SAILA)

WEB: www.alava.net

Probintzia plaza z.g.
01001 VITORIA-GASTEIZ
Tel. 945 181 818
Fax: 945 181 754
Posta elektronikoa: afa-dfa@alava.net

10. ARABAKO FORU ALDUNDIA (EKONOMIA GARAPEN ETA LURRALDE OREKAREN SAILA)

WEB: www.alava.net

Probintzia plaza z.g.
01001 VITORIA-GASTEIZ
Tel. 945 181 818
Fax: 945 181 754
Posta elektronikoa: afa-dfa@alava.net

11. ELKARGI, S.G.R. (OINARRI GIZARTE EKONOMIA)

Egoitza eta bulegoa Donostian
Mikeletegi pasealekua, 50.

20009 DONOSTIA-SAN SEBASTIAN
Tel. 943 309 060
Fax: 943 309 190
Posta elektronikoa: elkargi@elkargi.es
Web: www.elkargi.es

Vitoria-Gasteizko bulegoa

Arabako Parke teknologikoa, E-3 eraikina, 2. solairua
01510 MIÑAO (VITORIA-GASTEIZ)
Tel.: 945 231 212
Fax: 945 144 183
Posta elektronikoa: earaba@elkargi.es
Web: www.elkargi.es

Bilboko bulegoa

Plaza Biribila 4, 2.a
48011 Bilbo
Tel: 944 238 228
Fax: 944 236 683
Posta elektronikoa: ebizkaia@elkargi.es
Web: www.elkargi.es

ELKAR-LAN, S.C.OOP.